



Bibliak dioena arkeologiak baieztatzen al du?

Alexandre Dorozynski¹

Bibliak ipuinetik eta historiatik zer duen erabakitzea ez da batere erraza, baina arkeologia hasi da galdera batzuei erantzun zehatzak ematen. Bibliako beste pasarte batzuen egiaztapenik, ordea, inola ere ez dago.

Erlijio monoteistetako oinarri nagusia da Biblia eta mendebaldeko zibilizazioaren iturrietako bat ere bai. Gaur egun, ordea,

luetan munduaren eta gizakiaren sorrera, Uholdea eta Babelgo Dorrearen gora-beherak datoz, baina horiek denak mitikotzat hartzen dira. Mesopotamiako,



Gaur egun, zientziaren arlo askotako adituek egin dituzte ikerketak Bibliak dienez eta arkeologia, paleografia, geologia zein genetikan lortutako emaitzak ikusita, Testamentu Zaharrak elementu historiko batzuk badituela esan daiteke.

BIBLIAK DIOENA ARKEOLOGIAK BAIEZTATZEN AL DU?

baino gehiago egin zituzten Palestinaraino. Historian badira garai hartako nomaden aipamenak eta batzuetan mesfidantzaz hartzen zituzten, gainera. K.a. II. milurtekoaren hasierako sumertarren testu batek honela dio: “Estepan ibiltzen dira, laborerik ez dute egiten eta etxerik ere ez. Hiririk ez dute, haragi gordina jaten dute, heziketarik gabeak eta gobernazezinak dira eta ohi bezala ez dituzte hildakoak lurperatzen”.

Arabiarren eta juduen senidetasuna

K.a. II. milurtekoaz gero Kanaan-go lurraldeetan semitak (Sem-en ondorengoak) bizi ziren. Gose-tearen eraginez, Abraham Egiptoraino joan zen eta han aberastu ondoren Kanaana itzulita Hebron-en Makpela haitzuloa hartu zuen, bertan familiako hilobia ezartzearren. Horixe da Patriarken hilobia; inoiz ere aurkitu ez dena.



Abrahamen Sara emazteak urte askotan seme-alabarik ez zuen izan eta Abraham Agar neskaarekin elkartzera bultzatu zuen. Ismael semea jaio zen Agarren-gandik, baina Abrahamek 100 urte eta Sarak 90 urte zituztenean, Isaak semea jaio zitzaien. Tradizioak dioenez, Isaak juduen hamabi tribuen arbasoa da eta Ismael basamortuko hamabi tribu arabiarren arbasoa.

Arabiarrek eta juduak lehengusuak lirateke, beraz; semitak biak ere. Argitu beharra dago Bibliak dioena nolabait baieztatu egin dela ikerketa genetikoaren bidez. Parisko Nazioarteko Antropologi Institutuko Gerard Lucotte irakasleak duela bost urte, Y kromosomako ADNan inskribaturik dauden markatzaileak aztertu zituen ehundaka europarrengan, juduengan eta Ekialde Hurbileko arabiarrengan. Lucotte jaunak ikusi zuenez, 7. eta 8. markatzaileak hamar aldiz ugariagoak ziren juduengan judu ez ziren europa-



Moisesik izan al zen? Bibliatik aparte Moisesen, hebraitarren Egiptoko esklabutzaren eta Exodoaren aipamenik ez da beste inon. Migel Angel-en Moises.

rrengan baino, baina markatzaile horiek arabiarrengan ere juduengan bezain ugari dira. Egia da ikerketa genetiko honek Bibliako gertaera ez duela erabat baieztatzen, baina gutxienez desadostasunik ez du.

Esklabuen prezioa

Tradizioak dioenez, goseteak bultzatu zituen Israelgo hamabi tribuak Egiptora emigratzera. Han bizpahiru mendetan zoriontsu bizi izan ziren eta gero esklabu hartu zituzten. Basamortuko nomadentzat batere lan atseginak ez ziren faraoiak ezartzen zizkietenak: buztina prestatzea, moldetan pezoak egitea, etab.


ARKEOLOGIA

asko erabiltzen zen. (Gaur egun Israelgo *shekel* monetak siklotik hartua du izena). Baina sikloak Bibliatik aparte beste agiri batzuetan ere aipatzen dira; K.a. XVIII. eta XIX. mendeetako dokumentuetan, adibidez. Hamurabi Babiloniako errege izan zen K.a. 1792-1750 urte bitartean eta bere Kode famatuan esklabuak 20 siklo balio zituela aipatzen da. Mesopotamiako Mari hiri estatuko errege-artxiboetan ere prezio bera aipatzen da.

Gero, Moisesek bere herriari Agindutako lurreen bizitzeko legeak eman zizkionean, horietako batean zezenak esklabu edo morroia adarkatzen zuenean jabeak 30 siklo ordaindu behar zituela eta zezena harrika hil behar zela esaten zen. Mesopotamiako Nuzi hirian eta Siriako Ugarit-en aurkitutako agirietan ere esklabuen prezioa 30 siklotara igota zegoela ikusten da. Pertsiarren inperioan, berriz, K.a. V. mendean, inflazioa medio, esklabuen prezioa 90-120 siklotara igota zegoen.

Kenneth Kitchen-ek dioenez, arkeologo eta epigrafista askoren ustetan Bibliaren lehen bertsoak K.a. VI. mendekoak dira, baina hori egia bada, idazleek zergatik ez zuten esklabuentzat garai horretako 100 sikloko prezioa ezarri? Biblian aipatzen diren prezioak eta mila urtean zehar


Ez dakigu kasualitatea izan zen, baina Exodoa baino mende bat lehenago Egiptoko Akenaton faraoiak erlijio monoteista ezarri zuen. Amon jainkoa gurtzeari utzi eta Aton jainkoa onartu zuten. Eguzkia zen haren ikurra.



Erljio monoteistak

Arkeologo gehienek Exodoa izatekotan Ramses II.a faraoiaren garaian (K.a. 1279-1213) izan zela diote. Baina Testamentu Zaharrean aipatzen den ezer ere ez dago Egiptoko agirietan. Exodoa, Itsaso Gorria zeharkatzen. Ramon de Mur (XV. mendea).

an aipatzen den ezer ere ez dago Egiptoko agirietan; ez odoldutako



Hebraitarren migrazio handiak

logi ikerketa ugari egin. K.o. IV. mendeaz gero kristau-tradizioak Sinai mendia penintsulako hegoaldeko Musa (2.245 m) dela dio, baina zenbait exegetaren arabera, Arabian dago, orduan han sumendiak zeudelako.

Itun-kutxaren bila

Moisesen garaian Ituna kutxa batean gorde zuten eta arkaziazko kutxa urreztatu horren ezau-garriak zehatz-mehatz ematen dira Biblian. Bi ukondo eta erdi

Kenyon arkeologo britainiarrak sei urte eman ditu Jeriko industen eta indarkeriazko arrastorik ez du topatu. Itsaso Hileko eskuizkribuen arduradun den Magen Broshi israeldarrak dioenez, Jeriko eta Palestinako beste zenbait hiri, Judea eta Samariako muinoak bezalaxe, ia hutsik zeuden K.a. XV. mendeaz gero. Dena den, Bibliatik aparte gainerako iturrietan garai hartako Israel eta Josue ez dira inon aipatzen.

Dabiden erreinua

Biblia eta historia, ordea, beste kontu batzuetan bat datoz; filistearren gaian, adibidez. Filistearrak itsasoko herria ziren; Mizenas edo Kretakoa seguru asko. K.a. 1180. urtean Egipto inbaditzen saiatu ziren, baina Ramses III.a faraoiak geldiarazi zituen. Palestinako kostan lehorreratu eta gutxienez Judeako zati bat bereganatu zuten. Israeldarrak berrogei urtez filistearren menpe egon ziren Bibliak dioenez. Goliat garaitu zuen Dabid pertsonaia historikoa izan zen zalan-tzarik gabe. K.a. 1000. urte inguruan Dabid artzainak bere abailaz Goliat bekokian jota hil zuen. Gero Judako errege eta ondoren Israelgo errege izan zen. Jerusalem konkistatu zuen eta filistearrak, moabtarrak, jebusdarrak,

Salomon semea izan zuen. Hau Israelgo errege izan zen K.a. 970. urte inguruaz gero eta bere agintaldian lan handiak egin zituen. Jerusalemgo tenplua eraiki zuen, itsasoko espedizioak antolatu zituen, merkataritzarako bideak kontrolatu zituen, etab. Etiopiako tradizioak dioenez, Sabako erreginarekin (Arabiako iparraldean zeuden sabatarren erreginarekin) Menelik semea izan zuen eta hark eman zion hasiera Etiopiako erregeen dinastiari. Salomon hil ondoren inperioa zaititu egin zen. Iparraldeko tribuek Israelgo erreinua osatu zuten eta Salomonen ondorengoek hegoaldean Judako erreinuari eutsi zioten. Ahulaldi hartaz baliatuz, Egiptoko faraoiaren tropek K.a. 920. urtean Palestina inbaditu egin zuten. Beste hiru mendetan zehar gerrak eta gatazkak izan zituzten, baina K.a. 587. urtean Babiloniako Nabukodonosor II.a erregeak Jerusalem konkistatu eta hiria bere tenplu eta guzti suntsitu egin zuen.



* Iñaki Azkunek itzuli eta moldatua.

